

ANEXO IV

CRITERIOS DE ALIMENTACIÓN SOSTENIBLE

LANDARE-PRODUKTUAK:

- EAeko produkzio integratuko (PI) produktuak ondorengoetarako finkatu dira: zerba, uraza, piperra, tomatea, patata, kiwia, mahatsak eta sagarrak, hala ere, mahatsak eta sagarrak nagusiki ardoari eta sagardoari zuzenduak dira.

Euskolabelek produktu hauetarako finkatu ditu irizpideak: Gernikako piperra, Ibarako piperminak, tomatea, letxuga, babarrunak, sagardoa, olio eta patatak. Hurrengo Eusko Labelaren markak baditu barneratuta ekoizpen integratuaren irizpideak: Gernikako piperrak, Euskal tomatea, Euskal letxuga, Arabako patata.

- Nekazaritza ekologikoko produktuak: 834/2007 EEE Araudia betetzen dutenak dira. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren web gunean (www.enee.eus) ekoizle eta saltzaileen bilatzailea kontsulta daiteke.

ANIMALIA-JATORRIKO ELIKAGAIK:

- Euskolabelek produktu hauetarako finkatu ditu animalia-ongizateko irizpideak: behikiak, esneko arkumea, oilaskoa, txerria, esnea, arrautzak eta ezta.
- Abeltzaintza ekologikokoak diren produktuek 834/2007 EEE Araudia bete behar dituzte. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren web gunean (www.enee.eus) ekoizle eta saltzaileen bilatzailea kontsulta daiteke.
- Jardunbide egokiak, itsasoan harrapatutako espeziei dagokionez: itsasertzeko espezieak edo elikadura-katearen beheko mailakoak (hots, belarjaleak) izatea (sardina, paneka, bakalada, erreboiloa, txitxarroa, etab.). Gainerako espezien kasuan, gehiegizko ustiapena ekidin beharko

litzateke, maiz ondorengo espeziek pairatzen dutena: atuna, ezpata-arraina, mihiarraina, zapoa edo bakailaoa.

MSCk (arrainak, etab. Jasangarritasun irizpideekin bat etorri arrantzatu direla ziurtatzen duen erakundea eta etiketa) eta Euskolabel etiketa daramaten arrainak, itsaskiak, etab. jasangarritasun irizpideak jarraituz harrapatu direnak izan ohi dira.

Euskolabelek produktu hauetarako finkatu ditu arrantza-irizpideak: hegaluzea eta hegalaburra.

MSCk (*Marine Stewardship Council* ziurtagiria –arrantza iraunkorraren zigilua-) produktu hauetarako finkatu ditu arrantza-irizpideak: sardinazarra, mihi-arraina, berdela, lupia, ikazkina, legatza, izokina, atuna, bakailaoa, abadira, meroa, berberetxoa, ganba, bieira, otarraina eta ganba.

Hauek dira Produktu Integratuen arrantza-irizpideak dituzten produktuak: sardinazarra, mihi-arraina, berdela, lupia, ikazkina, legatza, izokina, atuna, bakailaoa, abadira, meroa, berberetxoa, ganba, bieira eta otarraina.

BESTELAKO BETEBEHARRAK:

- Kafe, azukre, te eta fruta tropikalezko zuku guztiek Europako Parlamentuaren Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruzko Ebazpenak (A6-0207/2006) halako produktuen betebeharrak zehazten ditu.